

Aurten ere, martxoaren 14tik 25era zeharkatuko du *Korrikak* Euskal Herri osoa, Arantzazutik Bilbora. Hamargarren edizioa, hain zuzen. 1980an euskararen aldeko ekitaldi erraldoi hau lehenengo aldiz martxan jarri zenetik gauza asko gertatu da. Dena den, lehenengo edizio hartan nagusi izan zen ideiak indarrean dirau: euskara berreskuratzea presazko kontua dugula, ezin dugula denborarik galdu, aurrera egin behar dugula urratsez urrats, pausoz pauso, baina korrika, etorkizuna ate joka baitugu. Ideia hau dago Korrikaren beraren sorburuan, eta berau izango da Korrika 10ean azpimarratuko dena.

17 urtetan antxintxika

Inor gutxik gogoratzen badu ere, hamazazpi urte dira jada lehen edizioa Oñatitik irten zenetik. Negu gorrian abiatu zen estrainekoz gaur egun euskararen alde egiten den ekitaldirik handiena. Korrika 1980an jaio zen, euskararen aldeko ekitaldiak puri-purian zeudenean. Urte batzuk lehenago "Bai euskarari" jaialdi historikoa ospatu zen, eta garai hartan hasi ziren ikastolen aldeko jaiak antolatzen (Kilometroak, Ibialdiak eta abar). Testuinguru honetan, eta antza denez afalondo batean, helduen euskalduntzeak euskararen berreskurapenean duen garrantzia azpimarratuko zuen ekitaldi bat egiteko ideia sortu zen zenbait AEKko kideren aldetik, eta ekitaldi hori lurralde osoa zeharkatuko zuen lasterketa erraldoia izango zela.

Lehenengo korrikan, prentsatzekoa denez, Orduko AEKren egitura eta gaurkoa guztiz desberdinak ziren, eta garai hartan gau-eskolek osatzen zuten gehiengo. Beste leku askotan ez zegoen AEKrik eta Koordinakundeko kideek hara joan behar izan zuten ibilbide guztia osatu ahal izateko. Arazo legalak ere egon ziren, hasieran Nafarroako Gobernu Zibilak Korrikari herrialde honetara igarotzea debekatu baitzion.

Urte erdi geroago, 1982an, korrikaren bigarren edizioa burutu zen Iruñetik Donostiara eta izan zuen puntu ilun bakarra PNVren laguntza eza izan zen. Hala ere aurreko urtea baino partehartze handiagoa lortu zuen honek.

Hirugarren edizioan Korrika finkatu zen euskararen aldeko mobilizapen erraldoi gisa. Euskal Herriko bazter guztiak zeharkatu zituen, jendearen partehartze handiagoa jasoz, batez ere Nafarroan eta Iparraldean, eta talde eta elkarte gehiago inplikatu. 1985eko maiatzaren 31an laugarren edizioa abioan jarri zen Atharratzen. Garai hartan gori-gorian zegoen HABE eta AEKren arteko liskarrak bere azarna utzi zuen 2.080 kilometroko korrikan.

Bosgarrena eta seigarrena guztiz arrakastatsuak izan ziren arren, azken honetan Jose Miguel de Barandiarani egindako omenaldia edizio horretako ekitaldirik aipagarriena izan zen. Zenbait arlo politikotatik Korrikaren kontrako jarrerak plazaratu ziren.

Zazpigarrenean berriz, euskal gizarteak bere hizkuntzaren alde egiten duen apustua nabarmendu egin zen, eta aldi berean euskararen izaera bateratzaile eta integratzailea. Zortzigarrenean bi egitarau paraleloren antolakuntza (korrika kulturala eta korrika kirolaria) dugu aipagarriena. Burutu harik dugun hamargarren edizioak, bederatzigarrenean lortutako markak haustea eta "Euskal Herria korrika" benetan lortze du helburu.

Urte luze hauetan lan handia egin da, eta lan honi esker esan dezakegu euskara hizkuntza osoa dela, hizkuntza moderno, gaur egungo bizitzaren esparru guztiak betetzeko gauza

dena. Baina hala ere, oraindik ez du bere herrian bertan dago-
kion maila erdietsi: horretarako euskaldun osoak behar ditu
gure hizkuntzak, hau da, euskaraz bizi diren euskaldunak, ez
dakitenek ikasiz eta dakitenek euskara uneoro erabiltzeko
konpromezua hartuz. Eta hori Euskal Herri osoan egin beha-
rreko lana dugu. Esfortzu erraldoi hori arrakastaz burutu ahal
izateko, jakina, begibistakoa da Plangintza Orokor baten beha-
rra, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duena eta euskararen
alde egiten diren esfortzu guztiak koordinatu eta norabide be-
rean paratuko dituena.

Hau guztia oraintxe egin beharreko zeregina dugu. 2000. ur-
tearen atarian gaude. Orain da garaia gure hizkuntzak dago-
kion lekua berreskura dezan, edo ehundaka urtetako lan ibil
eta nekagaitza alperrik gal daiteke. Orain ari gara gure etorki-
zuna lantzen. Euskara ikasi eta erabiltzearen konpromezua, eta
Euskal Herri osora hedatuko den Plangintzaren diseinua orain-
txe lortu beharreko kontuak ditugu. Ezin ditugu gerorako utzi.

Gizarte osoa da, euskararen berreskurapena xede, korrika
abiatu behar dena. Eta horregatik, lehenengo edizioaren leloa
moldatu eta "Euskal Herria korrika" esaldia aukeratu da aur-
tengoaren lelotzat.

Villasanteri omenaldia

Korrika guztietan bezala, euskararen aldeko langintzan na-
barmendu den pertsonalitate bati egingo zaio omenaldia Korri-
ka honen bidez. Oraingo honetan aita Luis Villasante izango
da Korrikaren eta euskaltzale guztien omena jasoko duena.
Izan ere, Villasantek, euskal literaturaren inguruan oso ikerketa
interesgarriak burutzeaz gain, lan handia egin du Euskaltzain-
buru izan zen urteetan euskara hizkuntza modernoa, hizkuntza
osoa izan dadin. Jakina denez, Villasante Arantzazuko saindu-
tegian bizi da, eta aukera hau profitatu nahi dute Korrikaren
antolatzaileek Villasanterekin batera Arantzazuko saindutegitik
egindako lan guztia gogoratu eta omentzeko. Arantzazuk ga-

rrantzi itzela izan zuen euskara batuaren sorreran, eta gainera gure hizkuntzaren gordeleku bilakatu zen urte luze eta ilunetan zehar. Era berean, Korrikak ez du ahaztu nahi euskal gizartetik bertatik sorturiko herri ekimenak urte luzetan egin duen lan isil eta etengabea. Lagun anonimo ugarik eskaini eta eskaintzen duten esfortzu hori ere gogoan izango du Korrikak.

Hamargarren ediziora heldu da Korrika, eta hori dela eta hainbat berrikuntza plazaratuko du aurtengoan. Orain arteko historia eta ekarpenak jasotzeko asmoz, liburu bat kaleratuko du Korrika 10ek. Lan horretan Korrikaren inguruko kontu jakingarri guztiak jasoko dira, alde grafikoari aparteko garrantzia eman zaio eta faszikuloka banatuko da Euskaldunon Egunkariarekin batera.

Beste berrikuntza inportante bat lekukoaren aldaketa dugu. Remigio Mendiburuk egindako lekuko originalak, bederatzi aldiz eskuz esku Euskal Herri osoa zeharkatu duen lekukoa, zaharkiturik dago erabat. Beraz, Gorriti eskultore famatuak originalaren erreproduzio bat egingo du aurtengo Korrikan erabiltzeko.

Bestalde, aurreko esfortzu berezia egingo da Korrikaren mezua leku guztietara hedatzen. Interneten badago Korrikari buruzko informazioa, mundu guztiaren ikusgai, eta dagoeneko hamaika lekutatik elkartasuna eta animu mezuak utzi dira webguneko buzoian.

Beti bezala, Korrika 10ek bere kanta izan du. Oraingo honetan Andoni Egaña bertsolari ezagunak egin du letra, eta musika eta interpretazioa Gozategi taldearenak dira. Aurtengo mezua laburbiltzen duen bideo bat ere kaleratu du Korrika 10ek.

Korrikari berari dagokionez, lehen esan bezala martxoaren 14tik 23ra zeharkatuko du Euskal Herri osoa. Lehenengo edizioaren izpiritua berreskuratzen nahian, edizio hartako ibilbidea errepikatuko da, baina orduan Oñatitik abiatu bazen, oraingotan Arantzazu izango da Korrikaren abiapuntua, bertan aita Vi-

Ilasanteri eta Arantzazu osoari omenaldia egin ahal izateko. Amaiera, berriz, Bilbon izango da.

Beraz, datozen bi hilabeteetan berriro ere euskararen aldeko kanpaina erraldoia jarriko du abian Korrikak Euskal Herriko kale eta bazter guztietan. Denon artean Euskal Herria korrika jartzea: hori da Korrika 10en asmoa. Izan ere, gure hizkuntza berreskuratzea denon zeregina baita: euskararen jabe garenona zein oraindik ere gure hizkuntza menperatzen ez duten arren zerbait propiotzat hartzen dutenena; instituzioena zein gizarte ekimenarena; hegoaldean, iparraldean, itsasertzean zein barnekaldean, egindakoa hausnartu, egiteke dagoenaz gogoeta egin eta beste aurrerapauso bat emateko aukera eskainiko digu Korrikak datozen hilabeteetan.

Korrika kulturala

Era berean, Korrikaren beste alde garrantzitsu bat Korrika Kulturalarena dugu. Azken edizioetan Korrikaren alde kulturalak garrantzi handia izan du, eta aurten ere berdín izan da. Otsailaren 21etik martxoaren 9ra berrehun ekitaldi baino gehiago antolatu dira Korrika Kulturalaren barruan.

Korrikak esfortzu handia egin du Kulturak dagokion lekua eduki dezan edizio honetan, eta horrela, urtean zehar dagoen eskaintza oparoa jaso eta bultzatzen ahalegindu da. Lasterketa-
ren espirituarekin jarraituz elkarlanari eta partehartzeari lehen-
tasuna eman nahi izan zaio.

Ekitaldiak hiru eratara antolatu dira: batzuk Korrikaren kultura izan dira, beste batzuk zenbait udalekin eta azkenez, kultur munduan normalki aritzen den jende eta elkarteekin harremanetan jarritz. Esate baterako Euskal Herrian Euskaraz, Bertsozaleen Elkarte, Eremuak eta UEMA izan dira besteak beste, elkarlanean aritu direnak.

*AEKko
Prentsa bulegoa*